



## SASKIBALOI ARAUAK 2022-2023

	<b>BENJAMINAK (LH 3-4 maila)</b>	<b>ALEBINAK (LH 5-6 maila)</b>
<b>JOKALARI KOPURUA</b>	4 jokalaria	5 jokalaria
<b>ALDAKETAK</b>	<u>Aldaketak atsedendietan bakarrik egingo dira, jokalariren batek min hartuz gero izan ezik. Kasu hauetan, gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da, baina ez da aktan apuntatuko</u>	
<b>JOKATU DAITEZKEEN ZATI KOPURUA</b>	Gehien eta gutxien jokatu duten jokalarien artean, gehienez zati baten aldea egon daiteke, (luzapenak barne). Adibidez, taldekideren batek 6 zatiak jokatu baldin baditu, beste guztiek 5 zati jokatu behar dituzte	
<b>IRAUPENA ETA ATSEDENALDIA</b>	Triangularrak Hiru partidatxo ordu terdian 4 laurden 5 minutuko.  Partida arruntak Partida bat ordu batean 6 laurden 6 minutuko.  <u>Atsedendialdiak minutu 1ekoak izango dira.</u>	6 minutuko 6 zati. (6 x 6). <u>Atsedendialdiak minutu 1ekoak izango dira.</u>  Triangularretan 5 minutuko 4 zati.

<b>SAKEA</b>	Hasierako sakea saltoa da. Saskiraketen ondoren sakeak saskiaren behealdetik aterako dira.	
<b>PARTIDUKO AZKEN EMAITZA</b>	Saskiraketa kopuruaren arabera. <u>Berdinketak onartu egiten dira.</u> Ez da hiruko punturik emango.  Azkeneko emaitzaren balioa gehienez +25ekoa apuntatuko da.	Saskiraketa kopuruaren arabera. Berdinketa dagoen kasuetan, <u>4 minutuko zatiak</u> jokatuko dira, irabazlea egon arte.(Luzapenean aktan agertzen diren jokalariek jokatutako zati kopuruak kontutan izan behar dira). Ez da hiruko punturik emango. <u>Azkeneko emaitzaren balioa gehienez +25ekoa apuntatuko da.</u>
<b>DEFENTSA</b>	Onartutako <u>defentsa bakarra indibiduala</u> da. <u>Zonakako defentsa debekatua dago.</u> Epaiaren <u>bigarren abixuan</u> , egiten dagoen taldeari 10 puntu kenduko zaizkio, hirugarren abixuan partidu galdutzat emango zaio. Edozein modutan <u>jokoa eten ondoren</u> (saskiratzea, faltak,baloia zelaitik irtetea...), defentsa norberaren zelaian hasiko da.	
<b>FALTAK</b>	Faltak ASKO pitatuko dira, falta egiteko ohitura mozte aldera. Faltak bakoitzeko ez da tiro libre ba ahalbidetuko. Zati bakoitzeko, <u>seigarren faltatik aurrera, tiro libre bat</u> jaurtitzeko aukera ahalbidetuko zaie, erreboterik gabe eta baloi jabetza emanaz. Jaurtiketa librea kanasta azpitik 4 pausotara botako da	Fakta ASKO pitatuko dira, falta egiteko ohitura mozte aldera. <u>Saskira botatzen dagoeneko ekintzan falta egiten bada, jaurtitzaileri 2 tiro libre (bigarrean erreboterarekin)</u> egokituko zaizkio. Faltak egiterakoan, saskira botatzen ez badago, bandatik aterako da.  Bosgarren faltatik aurrera, tiro libre bat jaurtitzeko aukera ahalbidetuko zaie,erreboterik gabe eta baloi jabetza emanaz.
<b>ZIGORRAK</b>	Jokalaria batek 5 falta egiten baditu, kaleratua izango da eta bere ordez, ordurarte gutxien jokatu duen jokalaria sartuko da (aktan ez da apuntatuko).	
<b>TXAPELKETA MODUA</b>	Ez dago txapelketarik.	Multzo bakoitzeko lehenengoen artean finala. 6N eta 5 mixtoetan triangularra jolastuko dira denak denen aurka, 5. jardunaldian sailapen orokorrean azken 3 taldeen artean triangularra egingo dute, 1-3-5 sailkatuak eta 2-4-6 taldeek triangular ezberdina osatzen dutelarik, horko irabazleak finalera sailkatuko dira. <b>Sailkapenean berdinketa egotekotan beraien artean jolastu duten emaitza izango da kontuan.</b>